BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4263

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 2koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, dantza sustatzeko diru-laguntzak emango dituen Balioespen Batzordeko kideak izendatu eta Batzorde horren osaera argitara emateko dena.

Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 11ko Aginduaren bitartez, dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea arautzen da.

Agindu horren 7. artikuluan xedatzen denez, Balioespen Batzorde batek prestatu eta igorriko du diru-laguntza horiei buruzko ebazpen-proposamena, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez, batzordekideak izendatu eta Batzorde horren osaera argitaratuko da.

Horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Balioespen Batzordeko kideak izendatzea eta Batzorde horren osaera –ondoren azaltzen dena– osorik argitaratzea:

Lehendakaria: Mikel Toral López (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Idazkaria: Imanol Arana Ariz (Kultura Saileko teknikaria).

Modalitate bakoitzeko kideak:

a) Sormen koreografikoa: Iratxe de Aranzibia Hermosilla; Helena Golab; Fernando Pérez Gómez.

b) Taldeak sendotzea: Arturo García Fiel; Marta Monfort Ayestaran; Fernando Pérez Gómez.

c) Dantza-obren ekoizpena: Antonio Cots Maciá; Laura Etxebarria Lus; Laura Landa Calvo; Cristina Redondo Alonso.

d) Dantzako profesionalei etengabeko prestakuntza eta laguntza ematea: Mari Carmen Agüero Montoya; Arturo García Fiel; Ana López Asensio.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.